

BURUKETAK

1. Anek 347 euro aurreztuta du 748€ ko ordenagailu berri bat erosteko. Zenbat diru falta zaio erosi ahal izateko ?

Erantzuna : € falta zaizkio erosteko

2. Zapateria batean 137 pare zapata daude. Zenbat zapata dira guztira?

Erantzuna : zapata

3. Ikerrek 167 kromo ditu eta bilduma osoak 732 ditu. Bilduma osatzeko zenbat kromo falta zaizkio?

Erantzuna : Kromo falta zaizkio

4. Atzo 347 orrialde irakurri nituen eta gaur atzokoaren bikoitza. Zenbat orri irakurri ditut gaur?

Erantzuna : orri irakurri ditut gaur.

5. Pirritx eta Porrotxen Kontzertu batean 315 ikusle elkartu dira. Haietatik 127 haurrak dira. Zenbat dira joan diren nagusiak?

Erantzuna : nagusiak dira.

6. Marwak 18 errotulagailu ditu eta erdia Beñateri utzi dio. Zenbat errotulagailu utzi dizkio Beñati?

Erantzuna : utzi dizkio Beñati

7. Gelan 25 aulki ditugu 5 mahaietan jartzeko. Zenbat aulki jarri behar ditut talde bakoitzean?

Erantzuna : aulki talde bakoitzean